



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko abenduaren 9a

83 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Iruñeko Udalarari eman zitzaion aurrerakineko amortizazioen gerorapena onesteko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, “Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiria” ezarri eta, horren ondorioz, Udalarari finantzazio araubide arruntean osagarri berezi bat ematen diona. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Foru Legea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari kreditu-osagarria emateari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Foru Legea, Toki Administrazioiko Departamentuari aparteko kreditua emateari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Foru Lege proiektua, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak baztertutako osoarekiko emendakinak (8. or.).
- Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek Nafarroako tributueta parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako ezartzen dituenak. Aurkeztutako emendakinak (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Ebazpena, Nafarroako Gobernuari premiatzeko Estatuko Gobernuari erakuts diezaion botiken erabilera arrazionalerako zenbait formula aurkitu beharra. Osasuneko batzordeak onetsia (15. or.).
- Ebazpena, Nafarroako Parlamentuak Errioxan hondakindegia bat jartzeko proiektuari buruz bere interesa eta kezka agertzeko. Osoko bilkurak onetsia (15. or.).
- Mozioa, Estatuko Gobernuari premiatzen duena Diputatuen Kongresura lanaldiaren murrizketa, besteak beste, arautzen duen lege proiektu bat bidali dezan. Osoko bilkurak baztertua (16. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Enplegua sortzeko plan industrialaren egiteari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (17. or.).
- Enpleguaren egonkortasunaren eta hitzarmen kolektiboen alde estatu mailan sinatu den akordioa bultzatzeko egin diren jaruketei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (18. or.).
- Nafarroako Administrazio Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (18. or.).
- Nafarroan instalatuta dauden enpresetan kontratu mugagabeak bultzatzeko berariazko neurriei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (19. or.).
- Lana banatzeari buruz jarduketaren bat egitea aztertzen ari ote den jakiteko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (20. or.).
- Abiadura Handiko trenaren trazadurari buruzko ikerlanaren gaurko egoerari buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak egin (20. or.).
- Alesbesko Escudera putzuko ura bere maila naturalean jartzeko hartu diren konponbideei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (22. or.).
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko zerbitzu periferikoak Gobernu Ordezkaritzan integartzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (23. or.).
- Aire bidezko elektrizitate-hariek sorturiko ingurugiro eraginak zuzentzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (24. or.).
- Gure Komunitateko komunikabideetako seinaleetan dauden inskripzio eta marratzei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (25. or.).
- A-68ko bidesarrietan beharpen bat lortzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (26. or.).

G SAILA:**Jakinarrazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Gainditu dutenen zerrenda eta izendapen proposamena (27. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuraren ebazpena, Kontuen Ganbarako Lehendakaria izendatzeko (27. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Iruñeko Udalari eman zitzaion aurrerakinako amortizazioen gerorapena onesteko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Iruñeko Udalari eman zitzaion aurrerakinako amortizazioen gerorapena onesteko Foru Legea onetsi zuen, ondorengo testuarekin.

Biltzarreko Erregelamenduko 143 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apestequiá

Iruñeko Udalari eman zitzaion aurrerakinako amortizazioen gerorapena onesteko Foru Legea

ZIOEN ADIERAZPENA

1988ko otsailaren 25ean Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak sinatu zuten Hitzarmenaren lehenengo klausulak honela dio:

“1988ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrek indarra hartu eta ondoko hamar eguneko epearen barruan, Nafarroako Gobernuak 3.500 milioiko aurrerakina emanen dio Iruñeko Udalari. Diru kopuru hori hamahiru urteko epean itzuli beharko da korriturik gabe. Gabealdia hiru urtekoa izanen da.

Iruñeko Udalak 1987ko abenduaren 31rainoko defizitak estaltzeko erabili beharko du aurrerakin hori (1.800 milioi pezeta epe ertain eta luzerako kredituak alde aurretik amortizatzeke, 600 milioi pezeta epe laburrerako kredituak finantzatzeko eta gainerakoa hartzekodunei zorrak ordaintzeko).”

Hitzarmen horretan adierazitakoarekin bat etorriz, 1988ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei

buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 38. artikulua ia hitzez hitz ematen du lehenengo klausula hartan ezarritakoa.

1988ko maiatzaren 19an harturiko Erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernuak agindu zuen 3.500 milioi pezeta ordain ziezazkioten Iruñeko Udalari, 1988ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 38. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, manu horretan adierazitako helburuetarako erabil zitzaizkien. Horrez gainera, erabilera hori Hitzarmenaren babesean eraturitako Batzorde Mistoaren aurrean egiaztatzea behar finkatu zen.

Aurrerakinaren xedea Iruñeko Udalaren finantza oreka lortzea zen. Hori helburu, egungo egoera ikusita, beharrezkoa da, gutxienez, aurrerakin hura amortizatzeko beste gerorapen bat onartzea, 2001 urteko abenduaren 31rarte.

1. artikulua. 1988ko ekitaldira Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 38. artikulua bidez emandako 3.500 milioiko aurrerakina amortizatzeko gerorapena onetsiko dio Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalari.

2. artikulua. Gerorapena 1997, 1998, 1999, 2000 eta 2001. urteetarako da. 2002. urtetik aurrera, Iruñeko Udalak ordaintzeari berrekin beharko dio, 350 milioi urtero, aurrerakina erabat amortizatu arte.

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, “Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiria” ezarri eta, horren ondorioz, Udalari finantzazio araubide arruntean osagarri berezi bat ematen diona

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Legea onetsi zuen: Foru Legea, “Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiria” ezarri eta, horren ondorioz, Udalari finantzazio araubide arruntean osagarri berezi bat ematen diona.

Biltzarreko Erregelamenduko 143 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, “Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiria” ezarri eta, horren ondorioz, Udalari finantzazio araubide arruntean osagarri berezi bat ematen diona

ZIOEN ADIERAZPENA

1978ko Konstituzioak 140. artikuluan udalerrien autonomia aitortzen du eta 142. artikuluan ezartzen legeek toki korporazioei esleitzen dizkieten eginkizunak aurrera eramateko behar diren baliabideak toki ogasunen esku jarri behar direla.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen bidez toki entitateen finantzaziorako araubide orokorra ezarri da, Foru Komunitateko Administrazioetik egiten diren baliabideen esleipenetan zuzentasun eta proportzionaltasunaren printzipio nagusiak zehazteko parametroen ezberdintasun kuantitatiboan arabera finkatua dagoena.

Iruñeko hiria, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko hiriburua denez, bertako Udalak berezitasun kualitatibo bat bereganatu du gainerako toki entitateen aldean, hiriko zerbitzu asko eta asko bertako biztanleek ezezik, egitatezko beste biztanle askok ere eskatu eta erabiltzen dituztelako: Iruñerria deitu eremu zabal horretako eta are Nafarroako beste tokietako biztanle mugikorrek eta bertako eroldan inskribaturik ez dauden egoiliarrek, Foru Komunitateko Administrazio-

ak eta Estatuko Administrazioak Iruñean, Foru Komunitateko hiriburua izateagatik hain zuzen, dituzten zerbitzu publiko handi horiek erabiltzera hiriburura noizbehinka edo aldiro etortzen baitira.

Udalaren zerbitzu publikoek eskari gehigarri horri erantzuna eman beharraren ondorioz, Hiriko zenbait zerbitzu eta azpiegitura nabarmen handitu behar izan dira eta, horrenbestez, udal aurrekontuen konturako gastuak ere igo dira. Alabaina, toki entitate honek ezin du bere erabiltzaile errealen gaineko per capita gastu gehigarri hori Toki Ogasunei buruzko Foru Legean bildutako finantzazio sistema arruntaren bidez erasan, ez dirusarrera berekien bidez, ez eta Toki Ogasunek Parte Hartzeko Fondoaren transferentzia arruntaren bidez ere, erabiltzaile horiek ez baitaude Iruñeko biztanleen eroldan.

Finantzazioan gertatu diren desoreka horiei dagokienez, Iruñeko Udalari tratamendu berezia eman zaio, Toki Ogasunen saneamendurako Nafarroako Gobernuaren kooperazio ekonomikoa arautzen duen azaroaren 13ko 15/1989 Foru Legean ezarri bezala. Neurri horiek aplikatzearen ondorioz Udalaren zorra nabarmen jaitsi bada ere, ez da gainditu hasiera batean koituntualtzat hartu zen egoera; izan ere, denborak erakutsi du afera egiturazkoa zela.

Bestalde, aipatu 15/1989 Foru Legeak udal autonomiaren inguruko hainbat muga ezartzen dizkie neurri horietara bildu ziren udalei, Iruñekoari kasu esate baterako; halako mugak, non beharrezkoa baita neurri horien iraupena ahalik eta laburrena izatea, Konstituzioaren manuak eta Nafarroako Foru Administrazioaren tradizio municipalista luzea errespetatuko badira. Nafarroako Hiriburuko Udalaren erabateko autonomia erreku-peratuko bada, Foru Komunitatean biztanle gehien duena baita, ezinbestekoa da aurretik aurrekontuen oreka lortzea.

Iruñeko Udalaren egungo egoera ekonomiko-finantzarioa ekarri duten azpiko arrazoi horiei irtenbide eman nahian, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 34. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, zeinak udalerrri batzuen ezaugarri bereziak direla kausa, bertan araubide bereziak eta, are gehiago, finantzazio sistema berezituak ezartzeko aukera aurreikusten baitu, Foru Lege honek Iruñeko Uda-

lari osagarri berezi eta berariazko bat eman nahi dio finantzazio araubide arruntean baliatzeko, Nafarroako hiriburua izatearen ondorioz etorri zaizkion ezaugarri bereziengatik.

Iruñeko Udalarendako finantzazio-eredu gehigarri hori 15/1989 Foru Legearen bidez ezarritakoaren ordezkia izanen da, 1997ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin haren tokia hartuko duena. Iruñeko hiriari tratamendu berezia emateko lehen urratsa da, funtsean "Hiriburutza Agiria" onartzearekin batera berezitasun ekonomiko-finantzarioa ematearen beharrean oinarritzen dena. Etorkizunean, Agiri horrek Foru Komunitateko Administrazioaren eta Iruñeko Udalaren arteko harremanen esparruko bestelako arloetan ere eragina izan lezake, Nafarroako gainerako toki entitateetan izaera orokorrez erabiltzen den prozeduraz bestelakoren bat aplikatu beharra juzkatzen bada.

Iruñeko Udal Ogasunaren egoera bideratzeko behar diren zenbateko osagarriak kalkulatzeko biztanleria erantsia deitu multzoaren kopurua ikusi da lehenbizi, Iruñeko Udalaren zerbitzua harendako kontraprestaziorik gabe hartzen ari direnena alegia, eta, ondoren, Iruñeko Udal aurrekontua hainbat arlotan (garraio publikoa, udaltzaingoa, babes zibila, osasun publikoa, suteei aurrea hartzeko zerbitzua, gizarte zerbitzuak eta azpiegituren mantenimendua, besteak beste) igotzen duten zerbitzu-handiagotze horien kostua kalkulatu da.

Halaber, Iruñeko Udalarendako ekarpen ekonomiko osagarria zenbatekoa izan beharko litzatekeen aztertu da, aurrekontu-likidazioaren ondoriozko aurrezki gordinekin inbertsioak egin ahal ditzan, zor-maila jasagarri baten bidez finantzatu ditzakeenak, hau da, Nafarroako gainerako toki entitateek duten zor-maila beretsuan.

Hortik atera diren datuetatik ikusi da ekarpen osagarri hori Foru Komunitateko Administrazioak 1995. urtera arte Iruñeko Udalari egindako ekarpenen batezbestekoaren adinakoa dela, 15/1989 Foru Legearen bidez ezarritako saneamendu ekonomiko-finantzarioarako neurrietara biltzearen ondorioz hartu zituenak alegia, gehi urte horietako Iruñeko Udalaren urteko Kontuen Likidazioetan sortutako diruzaintzako gerakin negatiboen urteko batezbestekoa.

Eragiketa horien ondorioz ikusi da mila eta zortziehun milioi pezeta dela aurrekontu-egoera orekatua birrezartzeko urtero behar den kopurua.

Foru Lege honek dotazio ekonomiko hori du abiapuntuan, eta etorkizunean hori egokitzeko mekanismosak ere aurreikusten ditu. Halaber, aurrekontuen kontrol sistema bat ezartzeko

asmoa finkatzen du, defizit gehiagorik ez edukitzeko eta azkeneko aurrekontu-likidazioaren gerakin negatiboaren adinako ekarpena finalista dela xedatzen.

1. artikulua. Iruñeko udalerriri "Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiria" ematen zaio, hiriak dituen ezaugarriak direla kausa, 1997ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, toki entitate horrendako araubide berezi bat eratuz, Foru Lege honetan finkatzen diren ezaugarri eta mugak dituena.

2. artikulua. "Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriak" ezartzen duen araubide bereziak tratamendu berezitua ematen dio Iruñeko Udalari araubide ekonomiko-finantzarioan, izan ere, Nafarroako toki entitateendako araubide arruntaren osagarria den finantzazio sistema berekia onartzen baitio, toki ogasunen saneamenduari buruzko lege xedapek ezartzen dutenarekin soilik bateraezina izan dena, ez besterekin.

3. artikulua. Ekarpene osagarriaren hasiera bateko urteko kopurua mila eta zortziehun milioi pezetakoa izanen da, 1997ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik ordaindu beharrekoa, "Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiria" kontzeptu gisa, Iruñeko Udaleko aurrekontuaren oreka birrezartzeko nahikoa delakoan.

4. artikulua. "Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriak" eskaintzen dion araubide ekonomiko-finantzario berezi hau bereganatzearekin batera, Iruñeko Udala Toki Ogasunen saneamendurako Nafarroako Gobernuaren kooperazio ekonomikoa arautzen duen azaroaren 13ko 15/1989 Foru Legearen eragin esparrutik aterako da automatikoki, 1996ko abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin, eta egun horretako Udal Kontuen likidazioari dagozkion legezko eskubideak kitzeari ekinen zaio.

5. artikulua. "Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiria" bereganatzearen ondorioz Iruñeko Udalari egin beharreko urteroko ekarpena 1998. urteko eta ondorengoetako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aurreikusiko da, "Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan Parte hartzeko Fondo Orokorreko bestelako laguntzak" izeneko kapituluan eta ekarpenaren urteroko igoera izanen da Parte hartzeko Fondo horretako Transferentzia Arruntan dotazioa aldatzeko urte horrexetarako finkatzen den ehuneko berbera.

6. artikulua. 1. "Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiria" jasotzearen ondoriozko ekarpenak finalista izanen dira eta horien zenbatekoa izanen da likidaturiko azken aurrekontu-ekitaldi itxian lorturiko diru-gerakin negatiboaren adinakoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko

2/1995 Foru Legearen 230. artikuluko 1 eta 2. idazatietan aurreikusitako neurrietatik kanpo gelditu dena, alegia. Horrenbestez, aurrekontu hori superabit birtuala duela onartu beharko da, eta superabit horren zenbatekoa ezin izango da diruzaintza-ko gerakin negatiboa baino txikiagoa izan, salbu eta aurrekontua luzatzea erabakitzen denean, kasu horretan diru-gerakin negatiboa finantzatzeko behar diren aurrekontu-aldaketak onetsi beharko baitira.

2. Aurreko lerroaldean adierazi beharkizuna betetzen ez bada, Nafarroako Gobernuo Toki Administrazio Departamentuak "Iruñeko Hiriren Hiriburutza Agiriari" dagokion dotazioaren zenbatekoaren ordainketa eten ahalko du, harik eta gastuen aurrekontuko deuseztapenagatik bajak onetsi arte, kapital dirusarreraren bidez finantzatzen ez diren gastuak alegia, diru-gerakin negatibo horien adinakoa, edo harik eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 230. artikulua-ren 2. idazatian adierazitakoaren araberako kreditu-eragiketara burutu arte.

7. artikulua. "Iruñeko Hiriren Hiriburutza Agiriari" dagozkion diru-kopuruen ordainketa, ekitaldi bakoitzean, lau alditan egingen da. Lehenbiziko hiru ordainketak hiruhileko natural bakoitzaren lehenengo hamabost egunen barruan egin beharko dira.

Laugarren ordainketa egingen da Iruñeko Udalak Udala Aurrekontu onetsiaren espedientea edo aurrekontu luzatua aurkeztu eta Nafarroako Gobernuo Toki Administrazio Departamentuak egiaztatu ondoren aurreko artikuluko baldintza guztiak bete direla. Ez-betetzeren bat antzematen bada, ordainketa horretatik eta, hala behar bada, hurrengoetatik, kenduko da diru-gerakin negatibo horiek estaltzeko adinakoa eta egoera erregularizatuko da Iruñeko Udalak eskatu zaizkion neurriak hartu eta gero.

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egun berean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari kreditu-osagarria emateari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari kreditu-osagarria emateari buruzko Foru Legea onetsi zuen, ondorengo testuarekin.

Biltzarreko Erregelamenduko 143 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari kreditu-osagarria emateari buruzkoa

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Nekazaritza Egituren Zerbitzuan zenbait aurrekontu-eskasia agertu da, lurzati kontzentrazio-ko inbertsioen birprogramazioaren ondorioz, eta kreditu-gehikuntza egin beharra gertatu da hurrengo aurrekontu-kontusailean: izena, Azterla-

nak eta proiektuak. 5b Helburuko P.O.; lerroa 97052-3; kopurua, 100.000.000 pezeta.

Gauzak horrela, behar horiei erantzun ahal izateko egoki den kreditu-osagarri bat eman da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

1. artikulua. 100.000.000 pezetako kreditu-osagarri bat eman da Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren beharrei erantzuteko. Kopuru hori aplikatuko zaio aurrekontuetako ondoko kontusailari: 71400-6092-5312; proiektua, 20002; lerroa, 97052-3; izena, Azterlanak eta proiektuak. 5b Helburuko P.O.; kopurua, 100.000.000 pezeta.

2. artikulua. Kreditu-osagarri horren finantzaketa honako kontusail hauetan eskuragarri diren kredituen kargura egingen da:

• 71400-7400-5321; proiektua, 20001; lerroa 97084-1; izena, ureztaluz berrietarako edo jadanik

daudenak hobetzeko dirulaguntza; kopurua, 60.000.000 pezeta.

- 71440-7600-5332; proiektua, 20003; lerroa, 90019-3; izena, herrilurren defentsa (L.P.A.ko 9. art.); kopurua, 40.000.000 pezeta.

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Toki Administrazioiko Departamentuari aparteko kreditua emateari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Toki Administrazioiko Departamentuari aparteko kreditua emateari buruzko Foru Legea onetsi zuen, ondorengo testuarekin.

Biltzarreko Erregelamenduko 143 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, Toki Administrazioiko Departamentuari aparteko kreditua emateari buruzkoa

Toki Administrazioiko Departamentuan Toki azpiegituren alorreko 1997-1999 Plan Berezia onartzeko beharra azaleratu da. Plan horrek ondorio horietarako eskualde behartsutzat jotako toki entitateak ditu helburu.

Gauzak horrela, behar horiei erantzun ahal izateko aparteko kreditu bat eman da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 44. artikuluan ezarritakoa-rekin bat etorritz.

1. artikulua. 600.000.000 pezetako aparteko kreditua eman da. Kopuru hori aplikatuko zaio aurrekontuetako ondoko kontusailari: 21300-7600-1241; proiektua, 13000; lerroa 9755-2; izena, eskualde behartsuetarako plan berezia.

2. artikulua. Aparteko kreditu horren finantzazioa honako kontusail hauen kargura egingen da:

21200-4600-9129; proiektua, 12000; lerroa, 09620-3; izena, Mendillorri banatzeko proiektua; kopurua, 359.000.000 pezeta.

21200-7600-9129; proiektua, 12000; lerroa, 92019-4; izena, toki enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena; kopurua, 120.000.000 pezeta.

21200-4600-9121; proiektua, 12000; lerroa, 09600-9; izena, biztanleen erregistro irekia mantentzea; kopurua, 49.000.000 pezeta.

21220-7600-1241; proiektua, 12000; lerroa, 92020-8; izena, ekonomi eta finantza kudeaketarako programa; kopurua, 72.000.000 pezeta.

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOAREKIKO EMENDAKINAK

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege Proiektuari hurrengoek aurkeztutako osoarekiko emendakinak baztertzea erabaki zuen: Nafarroako Demokraten Elkargunea, Ezker Abertzalea eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak, Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jauna eta Begoña Errazti Esnal

Foru Parlamentari andrea eta Martín Landa Marco Foru Parlamentari jauna, Askotariko Taldekoak.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuko Batzordera igorri da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdientarako ezartzen dituen

AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128 artikuluan ezarritakoa betez, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdientarako ezartzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezkeen agintzen da. Proiektu hori 1997ko azaroaren 17ko 76 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

OSOAREKIKO EMENDAKINAK

1. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ETA FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Osoko emendakina, Foru Lege Proiektuari, Gobernuari itzul dakion eskatuz.

Zioak: Izenburuan bertan zehazten dena arautuko duen proiektu hau politikoki desegokia iruditzen zaigu bi arrazoi hauengatik:

a) Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoari dagokionez, 1998rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege Proiektuan dagoen aurreikuspena biltzen duelako, nahiz eta Proiektu hori ezatabaidatzeko dagoen eta Gobernuak bere aldetik egindako aurreikuspenak alda daitezkeen: hori da azken ekitaldientan gertatu izan dena. Hala bada, beraz, Foru Lege honen indarraldia hilabete baino gutxiagora mugatuko da, izan ere geroko Foru Lege batek (Aurrekontuei buruzkoa) aldatuko duelako.

b) Era berean, Gobernuak banaketaren formula bere aldetik aurkezten duelako, bat etorri gabe, argi eta garbi, Toki Entitateekin, izan ere, Fondo Publikoen arlo honetan beren esku hartzearen titular direnekin. Horrenbestez, eta kasuan kasuko eztabaidan zabalduko ditugun irizpide hauek aintzat harturik, uste dugu Gobernuak proposatu duen Foru Lege hau gaizki, garaiz kanpo eta hutsune politiko larriekin planteaturiko formalitate bat besterik ez dela, eta gure Talde Politikoak salatu egin behar duela hori.

2. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Osoko emendakina, Toki Ogasunen fondoaren zenbatekoa eta banaketari buruzko Foru Lege Proiektuari.

Zioak: Transferentzia arrunten fondoaren dotazioa ezartzeko garaian, aintzat hartu behar da toki entitateek modua izan behar dutela jasotzeko Nafarroako Administrazio Publikoek oro har jasotzen dituzten ohiko baliakizunen batezbesteko jakin bat, teorikoki finkatutako berezko dirusarrerarekin batera (batezbesteko presio fiskalaren maila). Batezbesteko horrek % 25 izan behar du, baina piskanaka lortu behar da: 1998. urterako % 22ko eskuhartzea ezarri beharko litzateke, gutxienez, eta legegintzaldiaren amaierarako % 23koa izatea lortu beharko litzateke. Horrek berekin ekarriko du 1998rako transferentzi arrunten fondoak 1997koak baino 3.831 milioi gehiago izan beharko litzukeela.

Foru Lege Proiektuan erabiltzen den eguneratze-indizea KPIarena da, beraz, 1998rako transferentzia arrunten fondoak gora egingo du % 2,1ean. Ikusirik Foru Ogasunaren eta Toki Ogasunaren artean dagoen erantzukizunkidetasun fiskala eta kooperazio administratiboa, gure aldetik planteatzen dugu ezin bestela izan Nafarroako Dirusararren Aurrekontuetako 1. eta 2. kapituluetan tributufigura amankomunetik sortzen den dirubilketa likidoan 1996. urtetik 1997. urtera dagoen alde gehitzea fondoaren dotazioari. Beti ere, bermatu beharko da gutxienez 1997. urteko KPIaren adinako gehikuntza gertatuko dela. Horretarako administrazioen arteko hitzarmen bat ezarri beharko litzateke, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuekin daukan hitzarmenaren antzera.

Banaketarako erabiltzen den formula, gure ustez, ez da berbanaketarako formula bat, alegia, Administrazioaren maila bakoitza osatzen duten multzo ezberdinetako dirusarreraren eta gastuen arteko ezberdintasunak ahal den guztienean murrizteko formula bat. Beraz, formulak azpimarratu beharko ditu bai gastuaren beharizanak, bai balizko dirusarrerak. Gobernuak oraingoan egin duen proposamena, berriz ere, gastuan jartzen du indar handiena eta ez dirusarreretan; era horretan berbanaketaren printzipioa urratzen du. Era berean, ageriko zuribiderik gabe, kontzejuek murrizketak nabariak izango dituzte.

Hori guztia dela eta, ondoko erabakia hartzea proposatzen dugu:

“Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 126.5 artikuluan xedatutakoaren babesean, 1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen Foru Lege Proiektua itzuliko zaio Gobernuari.”

ARTIKULUEI EMENDAKINAK**1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****1. EMENDAKINA****BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ETA
FERMIN CIAURRIZ GOMEZ****FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

1. artikulua aldatzeko emendakina.

1. artikulua aldatzeko emendakina, “21.391.510.000 pezeta” jarri ordez “25.222.510.000 pezeta” jartzeko.

Zioak: Toki Entitateei Nafarroako ondasunen % 25eko eskuhartzea emateko helburua lortzeko bidean aurrera egitea.

2. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua aldatzeko emendakina.

“21.391.510.000 pezeta” dioen tokian, “24.284.000.000 pezeta” esan behar du.

Zioak: aurrera egitea Nafarroako Toki Administrazioak autonomia finantzarioa izan dezan lortzeko, toki administrazio horiek Nafarroako Administrazio Publikoen guztirako gastuaren % 25eko parte hartzea piskanaka lortuz.

3. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluar aurkeztutako emendakina.

“21.391.510.000 pezeta” dioen tokian, “22.529.888.000 pezeta” esan behar du.

Zioak: zenbateko hori beste bi emendakinen gehikuntzei dagokie, Toki Entitateetarako banaketa egokiagoa lortzeko.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

4. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ETA FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko emendakina.

2. artikulua aldatzeko emendakina, 1. idazatia aldatzeko, hain zuzen ere. "Transferentzia arruntak... 14.464.464.000 pta." jarri ordez "Transferentzia arruntak... 18.295.464.000 pta." jartzeko.

Zioak: aurreko emendakinean aipatu den irizpi-dea aplikatu nahi da, aipatzen diren baliakizunen % 25a, gutxi gorabehera, izan dadin.

5. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko emendakina.

"14.464.464.000 pezeta" dioen tokian "17.356.954.000 pezeta" esan behar du.

Zioak: aurkeztu diren beste emendakinekin bat etortzeko.

6. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. lerroaldea aldatzeko emendakina.

Proiektuaren testua

"1. Transferentzia arruntak... 14.464.464.000 pezeta

Proposatzen den testua:

"1. Transferentzia arruntak... 15.464.464.000 pezeta.

Zioak: Toki entitateendako banaketa egokiagoa lortzeko.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

7. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ETA FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

3. artikuluari aurkeztutako emendakina, kentzekoa.

Zioak: 1999rako parte hartzeko fondoaren finkapena toki entitateen ordezkariekin dagokion negoziaketa egin eta gero gauzatu behar da.

8. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko emendakina

Artikuluaren testuaren ordez beste hau jarri: "Toki entitateek Nafarroako Foru Ogasuneko tributuetan parte hartzeko 1999rako fondoa berbanatzeko izaera duen banaketa-formularen bitartez ezarriko da, eta toki entitate bakoitzari esleituko zaio haren gastu-mailaren eta gastuak finantzatzeko dirusarrerak lortzeko ahalmenaren arteko aldea besteko kopuru bat.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak sei hilabete epean bidaliko dio horri buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuari.

Zioak: Beste emendakin batzuen edukiarekin bat etortzeko.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

9. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren artikulua kentzeko emendakina

Zioak: Berbanatzeko izaera duen benetako banaketa-formula ezartzeko beharra, toki entitate bakoitzari esleitzeko haren gastu-mailaren eta gastuak finantzatzeko dirusarrerak lortzeko ahalmenaren arteko aldea besteko kopuru bat; Foru Lege proiektu honek aipatzen duen formulak

horrelakorik lortzen ez duenez, ez dugu egokitzat jotzen dagoen formulaz bestelakorik ezartzea.

10. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ETA FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Laugarren artikulua kentzeko emendakina

Zioak: Banatzeko formulak toki entitateen adostasuna eskatzen du, fondoaren titular baitira. Ez da halakorik gertatu, ordea, toki entitateen ordezkariak argi eta garbi adierazi duten bezala.

11. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua 4. zenbakiko 2. lerroaldea aldatzeko emendakina

Esaten duenean “Zerga ahalegintzat joko da...” honaino “...1,4ko errekaru orokorra izanik gutxieneko kuoten bidezko dirusarreraren aldean izanen da”; esan behar du “Zerga ahalegintzat joko da Nafarroako toki entitateen zerga guztiak aplikatzea, bai borondatezkoak bai derrigorrezkoak”.

Zioak: Aurkeztu diren beste emendakin batzuekin bat etortzearen.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

12. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua kentzeko emendakina

Zioak: Aurkeztu diren beste emendakin batzuekin bat etortzearen.

13. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ETA FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

5. artikulua kentzeko emendakina

Zioak: Talde politiko honek 4. artikuluari aurkeztu dion emendakinean agertzen direnak.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

14. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Aurkeztu diren beste emendakin batzuekin bat etortzearen.

15. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ETA FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Talde politiko honek 4. artikuluari aurkeztu dion emendakinean agertzen direnak.

16. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluari aurkezturiko emendakina, kentzekoa.

Hauxe kendu: “eta 1999rako”

Zioak: Aurkeztu diren beste emendakin batzuekin bat etortzearen.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

17. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Aurkeztu diren beste emendakin batzuekin bat etortzearen.

18. EMENDAKINA**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ETA
FERMIN CIAURRIZ GOMEZ****FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

7. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Talde politiko honek 4. artikuluari aurkeztu dion emendakinean agertzen direnak.

**11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA****19. EMENDAKINA****«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikuluari aurkezturiko emendakina, kentzekoa.

Artikulu guztia kentzea.

Zioak: Aurkeztu diren beste emendakin batzuekin bat etortzearen.

**XEDAPENEI AURKEZTURIKO
EMENDAKINA****20. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Hurrengo testua duen xedapen iragankorra gehitzea:

Xedapen gehigarria

Partehartzeko Fondo Orokorraren transferentzia arrunten dotazioek 1998an izango duten gehikuntza, beste arau batzuek abiapuntutzat har dezaketena, hurrengo izango da, kontzeptuen homogeneotasuna dela-eta: 1997. urterako transferentzia arrunten kopuruaren eta 1998. urterako kopuruaren arteko aldea, azken horri haxe kenduko zaiolarik: 1.202.600.000 pezeta, Estatuarekin hitzartu gabeko aintzinako zergetatik heldu direnak.

1999. urterako, Partehartzeko Fondo Orokorraren transferentzia arrunten dotazioen gehikuntza, beste arau batzuek abiapuntutzat har dezaketena, haxe izango da: Foru Komunitateko Kontsumorako Prezioen Indizea, 1997ko ekainetik 1998ko ekainera neurtua.

Zioak: Xedapen honen asmoa da beste lege batzuei, hala nola Iruñeko Hiriko Hiriburutza Gutnari buruzkoari, eragin diezaiekeen gehikuntza kopuru homogeneoen artekoa izatea, izan ere, lehenago Estatuarekin hitzartu gabe zeuden zergetatik heldu den kopuruak eragindako gehikuntzak, Nafarroako Gobernuaren Partehartze Fondo berekiaren transferentzia arrunten gehikuntza desitxuratzen baitu.

**ERANSKINA AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****21. EMENDAKINA****BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ETA
FERMIN CIAURRIZ GOMEZ****FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

Eranskinetako testua kentzeko emendakina

Zioak: 4. eta 5. artikuluei aurkezturiko emendakinekin bat.

22. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Eranskinetako 1. koadroa aldatzeko emendakina

Esaten duenean "40.000", haxe esan behar du: "30.000".

Zioak: Aurkezturiko beste emendakin batzuekin bat etortzearen.

23. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Eranskinetako 3. koadroa aldatzeko emendakina.

Hona nola geratuko den Eranskinetako 3. laukia

| Aldagaia | Ehunekoak |
|----------------------------------------|-----------|
| Gastuaren arabera ponderaturiko pop. | %62,00 |
| Osaketaren arabera ponderaturiko pop. | %10,04 |
| 16 urte edo gutxiago dituen populazioa | %2,86 |
| 65 urte edo gehiago dituen populazioa | %1,35 |
| Langabetu kopurua | %2,35 |
| Hiri lurzoru garbia | %7,08 |

| | |
|---------------------------------|-----|
| Zerga ahalegina | %15 |
| Herrilurretako balio katastrala | %-1 |

Zioak: Aurkeztu diren beste emendakin batzuen edukiarekin bat etortzearen.

**FORU LEGEAREN IZENARI
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

24. EMENDAKINA

**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ETA
FERMIN CIAURRIZ GOMEZ
FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

Foru Legearen testua aldatzeko emendakina, hona nola geratuko den:

Foru Legea, Toki Ogasunek Nafarroako tribuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa 1998ko ekitaldirako ezartzen duena.

Zioak: Talde politiko honek aurkezturiko emendakinekin bat etortzearen.

25. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Foru Legearen izena aldatzeko emendakina

Esaten duenean "1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako", hauxe esan behar du: "1998ko aurrekontualdirako".

Zioak: Uste dugu izen hori hobeto egokitzen zaiola aurkeztu ditugun emendakinen edukiari.

**ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK**

26. EMENDAKINA

**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ETA
FERMIN CIAURRIZ GOMEZ
FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenari aurkezturiko emendakina, kentzekoa.

Haren testua kentzeko emendakina.

Zioak: Kontuan hartzen badugu Foru Lege proiektua eta planteatu diren aldaketa eta kenketak bat ez datozela, egokiago iruditzen zaigu Foru Lege proiektu honek, Talde politiko honek propo-

satu duen modura onartzen bada, zioen azalpenik ez izatea, aterako litzatekeen soiltasunagatik eta indarreko araubidera jotzen duelako.

27. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko emendakina.

Zioen azalpenari aurkezturikoa.

2. orrialdeko 2. lerroaldean. "... eta, ondoren,..."etik lerroaldearen bukaerarainokoa kendu.

Zioak: Egokiago iruditzen zaigu hori, aurkeztutako emendakinen edukia kontuan hartuz gero.

28. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Gehitzeko emendakina.

Zioen azalpenari aurkezturikoa.

2. orrialdeko 2. lerroaldean. "Nafarroako Ogasun Publikoan"en ondoren, hauxe jarri: ", 1998ko aurrekontualdian,".

Zioak: Talde honek aurkezturiko beste batzuekin bat egitearren.

29. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko emendakina

4. orrialdeko 2. lerroaldea. Lerroalde guztiaren orde, hurrengo jartzea: "Azalpen honen hasierari lotuz, Foru Lege hau erdibidea da gaur egunera arte indarrean izan den sistemaren eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak eskatzen duenaren artean, izan ere, azken horrek ezarri baitu fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula justizia eta proportzionalitate irizpideen arabera ezarriko dela. Azken Foru Lege horrek sei hilabeteko epea ezarri du Nafarroako Gobernuak Foru Lege proiektua egin eta Parlamentuari bidal diezaion, aipatu fondoaren birbanatzeko izaera finkatzeko."

Zioak: Aurkezturiko beste emendakinen edukiarekin bat egitearren.

E SAILA:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzeko Estatuko Gobernuari erakuts diezaion botiken erabilera arrazionalerako zenbait formula aurkitu beharra

OSASUNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduko 112 artikuluan ezarritakoa betez, "Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzeko Estatuko Gobernuari erakuts diezaion botiken erabilera arrazionalerako zenbait formula aurkitu beharra", Osasuneko Batzordeak, 1997ko azaroaren 26ko bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzeko Estatuko Gobernuari erakuts diezaion botiken erabilera arrazionalerako zenbait formula aurkitu beharra

Nafarroako Gorteek Nafarroako Gobernua premiatzen dute, bere eskumenak erabiliz eta kasuan

kasuko organoetan, Estatuko Gobernuari erakuts diezaion botiken erabilera arrazionala egin dadin zenbait ekimen-formula aurkitzeko behar larria, ikusirik haiek oker preskribitzeak ekartzen dituen ondorio terapeutiko eta ekonomiko negatiboak.

Era berean, Nafarroako Gorteek agertarazten dute ez daudela ados osasun sistemaren prestazio sozialak eta osasungintzaren kalitatea kalteztzen dituzten, osasun tratamendu hutsetik kanpo botiken finantzazio selektiboa berekin ekartzen duten eta osasun laguntza aurrezki ekonomikoaren ikuspuntu hutsetik ikusten duten neurriekin.

Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernua premiatzen du, botiken erabilera arrazionalari buruzko lehenbiziko puntuarekin bat etorriz, sistema publikoaren osasun prestazioen maila kaltetzen duten aurrekontu-aldaketen aurkako jarrera ager dezan.

Ebazpena, Nafarroako Parlamentuak Errioxan hondakindegia bat jartzeko proiektuari buruz bere interesa eta kezka agertzeko

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduko 112 artikuluan ezarritakoa betez, "Nafarroako Parlamentuak Errioxan hondakindegia bat jartzeko proiektuari buruz bere interesa eta kezka agertzeko Ebazpena", 1997ko azaroaren 27an egindako Osoko Bil-

kuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

**Ebazpena, Nafarroako Parlamentuak
Errioxan hondakindegia bat jartzeko
proiektuari buruz bere interesa eta
kezka agertzeko**

Nafarroako Parlamentuak:

1. Errioxan hondakindegia bat jartzeko proiektuari buruz bere interesa eta kezka agertu nahi dizkio Nafarroako Gobernuari.

2. Nafarroako Gobernua premiatzen du Ingurugiro Departamentuaren bidez aipatu proiektuaren garapena eta eboluzioa jarrai ditzan eta Parlamentuari eta ukitutako Nafarroako herriei aldiarekin informazioa diezaien.

**Mozioa, Estatuko Gobernua premiatzen duena Diputatuen Kongresura
lanaldiaren murrizketa, besteak beste, arautzen duen lege proiektu bat
bidali dezan**

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Biltzarrak, 1997ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozio hau baztertu zuen: Mozioa, Estatuko Gobernua premiatzen duena Diputatuen Kongresura lanaldiaren murrizketa, besteak beste, arau-

tzen duen lege proiektu bat bidali dezan. Mozio hori 1997ko azaroaren 19ko 77 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F Sails:
GALDERAK

Enplegua sortzeko plan industrial egiteari buruzko galdera*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Enplegua sortzeko plan industrial egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco Askotariko Parlamentari Taldean den "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Enplegua ahal den guztian haztzeko behar diren bide guztiak aztertu behar dira, enplegu mugagabea eta Nafarroako eskualde guztietan ongi banatua lortzeko. Horrek gaurko joerak hautsiko lituzke, alegia, populazioa industriguneetan

biltzeko eta sektoreen gehiegizko bilketarako joerak.

Hori guztia dela eta, oso baliagarria izango litzateke industri plan bat burutzea, joera horiei guztiei buelta emateko, industria sektore gehiagotara zabalduz eta eskualdeetan hobeki banatuz, eta era berean sektore tradizionalak, hain zuzen ere bertako produktuei balioa ematen dietenak bultzatuz.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Ba al du Nafarroako Gobernuak agente sozialekin lankidetzan aritzeko asmorik, ezaugarri horiek dituen plan bat egiteko Nafarroarako?

2. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak helburu horretarako bideak ematea eta, gainera, 1993an sindikatuarekin sinatu ziren konpromisoak betetzea, Nafarroako Industriaren Mahaia eratuz?

3. Baiezkoan, zein epetan?

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Enpleguaren egonkortasunaren eta hitzarmen kolektiboen alde estatu mailan sinatu den akordioa bultzatzeko egin diren jaruketei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak enpleguaren egonkortasunaren eta hitzarmen kolektiboen alde estatu mailan sinatu den akordioa bultzatzeko egin diren jaruketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco Askotariko Parlamentari Taldean den "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Langabezia eta enpleguaren behin-behinekotasuna dira langileen arazo nagusiak. Nafarroak 22.288 –aurtengo abuztuari buruzko INEMen datuen arabera– eta 26.000 edo 27.000 –gaur erregistratuta daudenak– arteko langabetu kopu-

ria dauka. Aurtengo 2. hiruhilekorako biztanleria Aktiboari buruzko Inkestak dio 232.200 pertsona-ko langileria aktiboa dagoela Nafarroan.

Nafarroako datuak Estatuko batezbestekoak baino hobekak izateak ez digu gehiegizko lasaitasunik sortu behar.

UGT, CC.OO eta CENek aurtengo ekainean akordio bat sinatu zuten Nafarroan bultzatzeko estatu mailan enplegu iraunkorraren eta hitzarmen kolektiboen alde sinaturiko akordioa. Nafarroako Gobernuak publikoki adierazi zuen bere egingo zuela akordio hori.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Zein jarduketa burutzen ari da Nafarroako Gobernua edo zein jarduketa burutzeko asmo du etorkizunean, CENek eta UGT eta CC.OO sindikatuek sinatu zuten akordio hori gure komunitatean bultzatzeko?

2. Zein neurri ezarri ditu Nafarroako Aurrekontu Orokorretan eta zenbat dirurekin eta zein aurrekontu-lerro erabiliz, aipatu helburuak lortzeko?

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an.

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Nafarroako Administrazio Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Administrazio Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco Askotariko Parlamentari Taldean den "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Langabezia eta enpleguaren behin-behinekotasuna dira langileen arazo nagusiak. Nafarroak 22.288 –aurtengo abuztuari buruzko INEMen datuen arabera– eta 26.000 edo 27.000 –gaur erregistratuta daudenak– arteko langabetu kopu-ria dauka. Aurtengo 2. hiruhilekorako biztanleria

Aktiboari buruzko Inkestak dio 232.200 pertsona-ko langileria aktiboa dagoela Nafarroan.

Nafarroako datuak Estatuko batezbestekoak baino hobeak izateak ez digu gehiegizko lasaitasunik sortu behar.

UGT, CC.OO eta CENek aurtengo ekainean akordio bat sinatu zuten Nafarroan bultzatzeko estatu mailan enplegu iraunkorraren eta hitzarmen kolektiboen alde sinaturiko akordioa. Nafarroako Gobernuak publikoki adierazi zuen bere egingo zuela akordio hori.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Zein jarduketa burutzen ari da Nafarroako Gobernua Nafarroako Administrazio Publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko?

2. Zein neurri hartu ditu Nafarroako Administrazio Publikoan aparteko orduak murrizteko?

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Nafarroan instalatuta dauden enpresetan kontratu mugagabeak bultzatzeko berariazko neurriei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroan instalatuta dauden enpresetan kontratu mugagabeak bultzatzeko berariazko neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco Askotariko Parlamentari Taldean den "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Langabezia eta enpleguaren behin-behinekotasuna dira langileen arazo nagusiak. Nafarroak 22.288 –aurtengo abuztuari buruzko INEMen datuen arabera– eta 26.000 edo 27.000 –gaur erregistratuta daudenak– arteko langabetu kopurua dauka. Aurtengo 2. hiruhilekorako biztanleria

Aktiboari buruzko Inkestak dio 232.200 pertsona-ko langileria aktiboa dagoela Nafarroan.

Nafarroako datuak Estatuko batezbestekoak baino hobeak izateak ez digu gehiegizko lasaitasunik sortu behar.

UGT, CC.OO eta CENek aurtengo ekainean akordio bat sinatu zuten Nafarroan bultzatzeko estatu mailan enplegu iraunkorraren eta hitzarmen kolektiboen alde sinaturiko akordioa. Nafarroako Gobernuak publikoki adierazi zuen bere egingo zuela akordio hori.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Berariazko zein neurri sustatzen ari da Nafarroako Gobernua Nafarroan instalatutako enpresetan kontratu mugagabeak bultzatzeko, zein neurri aurreikusi dira, zein aurrekontu-lerroren kargura eta zenbat dirutan?

2. Bestelako zein berariazko neurri aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak arazo bereziak dituzten taldeetako langileak lan merkatuan sar daitezkeen bultzatzeko: gazteak, emakumeak, 40 urtez gorakoak eta abar?

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Lana banatzeari buruz jarduketaren bat egitea aztertzen ari ote den jakiteko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak lana banatzeari buruz jarduketaren bat egitea aztertzen ari ote den jakiteko egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco Askotariko Parlamentari Taldean den "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Langabezia eta enpleguaren behin-behinekotasuna dira langileen arazo nagusiak. Nafarroak 22.288 –aurtengo abuztuari buruzko INEMen datuen arabera– eta 26.000 edo 27.000 –gaur erregistratuta daudenak– arteko langabetu kopurua dauka. Aurtengo 2. hiru hilabeterako biztanleria

Aktiboari buruzko Inkestak dio 232.200 pertsona-ko langileria aktiboa dagoela Nafarroan.

Nafarroako datuak Estatuko batezbestekoak baino hobeak izateak ez digu gehiegizko lasaitasunik sortu behar.

UGT, CC.OO eta CENek aurtengo ekainean akordio bat sinatu zuten Nafarroan bultzatzeko estatu mailan enplegu iraunkorraren eta hitzarmen kolektiboen alde sinaturiko akordioa. Nafarroako Gobernuak publikoki adierazi zuen bere egingo zuela akordio hori.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Nafarroako Gobernuak aztertzen ari al da jarduketaren bat egitea lanaren banaketari ekiteko, bai Nafarroan instalatutako enpresetan bai Nafarroako Administrazio Publikoan bertan ere?

2. Baiezkoan, zein inplikazio gradurekin?: langile berriak sartzegatik lanaldia murrizteko ekimenak diruz laguntzea, enplegu politika horretan esku hartzen duten enpresei hobariak ematea eta abar.

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Abiadura Handiko trenaren trazadurari buruzko ikerlanaren gaurko egoerari buruzko galdera

INMACULADA MATIAS ANGULO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Abiadura Handiko trenaren trazadurari buruzko ikerlanaren gaurko egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Inmaculada Matías Angulo "Nafarroako Demokratikoen Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikirik Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz, honako galdera hau egiten du:

Abiadura Handiko Trena (AHT hemendik aurrera) oinarritzko eta funtsezko azpiegitura da etorkizunari aurre egiteko, eta unitate politiko administratibo bat –alegia, komunitate autonomo bat edo foru komunitate bat, gure kasuan– AHT-

tik kanpo geratuko balitz, ederki kaltetuta eta aurreratzeko eta garatzeko gaitasunak ongi murriztuta geratuko litzateke. Beste aldetik, AHTa ezarri eta funtzionamenduan jartzeak daukan kostuaren ondorioz, pentsaezina da gurea bezalako komunitate batek bere trazadura propioa egitea bere baliabideak erabiliz, etorkizunean egin litekeen trazadura batekin konektatzeko, beti ere trazadurak Nafarroa zeharkatuko ez balu (ez bedi hori gerta).

Nafarroako trenbidearen trazadura zaharrarekin ere gertatu zen isolatuta geratu zela oinarrizko sarearekiko; horrek, gaurko egunean ere, zerbitzua eskasa izatea ekarri du, suertatu diren kalteak eta guzti.

Horregatik guztiagatik uste dugu jende guztiak onartzen duela, eta halaxe adierazten zuen Batzordeak berak jarduera-lerroak aurkeztu zituen egunean "Nafarroako trenbidearen gaia erronka handia da, izan ere lan handia egin behar delako, gure Foru Komunitatearen kaltetan bada ere, abiadura handiko korridore nafarra egin dadin".

Ordutik, urtebete baino gehixeago pasatu delarik, ez da berri garrantzikorik izan horren garrantzi handiko lerro horri buruz eta, hala ere, uste izatekoa da zerbait gertatuko zela adierazitako bilkuran aipatu ziren alderdiak, trazadura, lurralde erreserba, ikerlan, ingurugiro eraginaren deklarazio eta bultzatu eta etenik gabe burutu nahi ziren bestelako urrats administratiboan.

Era berean, Kontseilariak adierazten zuen, natur baldintzak ikusita, bere gain hartzen zuela arestian aipaturiko ekimenak ahal den guztian bultzatzeko konpromisoa, eta horrexegatik "une honetatik bertatik zuen, guztion babes" eskatzen zuen. Babes emateko jarrera horretan eta informazioa izateko helburuarekin, jakin nahi da:

1. Zein da une honetan Nafarroako korridorearen trazadurarako alternatibak bilatzeko ikerlana-

ren egoera, kontuan hartuta lan hori 1996ko urrian kontratatu zuela Sustapen Ministerioak laurogei milioiren truke eta urtebeteko epea zegoela bukatzeko eta entregatzeko?

2. Entregatuta badago, zer dio Nafarroan zehar Abiadura Handiko Trenak izanen duen trazadurari buruz?

3. Entregatuta ez badago, noiz uste da entregatuko dela?

4. Entregatzen bada, agertuko al da Kontseilaria Batzordean hain garrantzitsua den eduki horren berri emateko? Utziko al du Batzordearen eskura edo hartuko al du Departamentuarentzat alternatibei buruzko aipatu ikerlanaren aleren bat?

5. Era berean, une honetan, zein da Nafarroako balizko trazadurari buruz dakizuna?

6. Sustapen Ministerioak sortutako batzorde mistoak zein eta zenbat bilera eta hizketalditan hitz egin du Nafarroatik eta hurbileko beste komunitateetatik trazadura pasatzeari buruz azken urtean? Batzorde horren funtzionamendua beste galdera baten erantzunean azaldu zenion beste Parlamentari bati.

7. Egoki ikusten al duzu Batzordeko kideei aldiari buruzko informazioa bidaltzea, behar den zehaztasunez, Nafarroako Aurrekontuetan AHTrako baliatuko diren kontusaileri buruz, ezertan kaltetu gabe beste esparru batzuetan eman ditzakezun informazioak?

8. Bermatu al daiteke une honetan AHTaren trazadurak Nafarroa zeharkatuko duela? Hala ez bada, zein jarduketa uste duzu burutu beharko liratekeela hori lortzeko?, zein arazo nagusi daude horretarako?

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Foru Parlamentaria: Inmaculada Matías Angulo

Alesbesko Escudera putzuko ura bere maila naturalean jartzeko hartu diren konponbideei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Alesbesko Escudera putzuko ura bere maila naturalean jartzeko hartu diren konponbideei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Alesbesko udal dermioko Las Navas inguruan kokaturik dagoen Escudera putzuan sortutako arazoa galdera ugariren gaia izan da Parlamentuan, eta bi lan-bilkura ere eragin ditu. Horietara Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria, Alesbeseko Ureztatzaileen Elkarteak, Morante izeneko Eraldaketarako Nekazaritza Sozietatea eta ukituriko bizilagunak joan dira.

La Escuderako putzua sakonune batean behertua dagoen zulogune-tankerako formazio geologiko baten gainean eratua dago, bere drenaje naturala zailtzen duten material iragazkaitzez osaturiko substratu baten gainean. Aurten, jatorri

ezberdineko hainbat ur-ekarpenek (euria, atzeratutako drenajea, euri-isurkiak, ureztaketarako erabileren ondorioz egindako betetzeak eta abar) ura metatzea eragin zuten, Alesbesko bizilagunak erne jarraziz.

Parlamentu honetan gai honen inguruan burutu ziren jardueren dagokionez, eginiko lan-bilkura ezberdinetan urpean geratutako zonaren maila kontrolatzeko balizko irtenbide teknikoaren balioespena egin zen.

Joan den astean ekin zitzaizkien arduragai dugun arazoa konpontzeko lanei.

Alesbesko La Escudera putzuko ura bere maila naturalean uzteko asmoz erabakitako irtenbideari dagokionez, honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

1.- Zertan dautza hasi diren lanak? Zer aurrekontu dute? Horiek noiz bukatzea aurreikusten da?

2.- Lan hauek behin betiko konponduko al dute La Escudera putzuko arazoa? Zer sistema aurreikusi da aipatu putzuko uraren maila egonkor mantentzeko?

3.- Morante izeneko Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateak eta Alesbesko Udalak azkenik hartutako erabakiaren bilaketan parte hartu al dute, edo parte hartzea aurreikusten al da? Zein heinetan? Zer kosturekin?

Iruñea, 1997ko azaroaren 18a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko zerbitzu periferikoak Gobernuko Ordezkaritzan integratzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko zerbitzu periferikoak Gobernuko Ordezkaritzan integratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Joan den azaroaren 5ean, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legeak aurreikusitako epeak betez, abuztuaren 1eko 1330/97 Dekretua sartu zen indarrean, orain arte Sustapen, Industri eta Energia eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioen menpekoak ziren Probintziako Zuzendaritzak kenduz. Horrek dioenez, Gobernuaren ordezkaritza eta azpiordezkaritzak Administrazio Publikoen Ministerioaren menpean egotera pasa-

tzen dira; ministerio horrek hartuko du horien antolaketa eta funtzionamenduen erantzukizuna, hala nola giza- eta material-baliabideen kudeaketarena ere.

Gobernuaren Ordezkaritzari Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren zerbitzu periferikoak lotzeari dagokionez, honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

1.- Nafarroako Administrazio Publikoek azken transferentziak hartu ondoren, zer zerbitzu mantentzen ditu gure Komunitatean Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak?

2.- Nafarroako nekazari eta abeltzainei Administrazio Publikoek, orokorki harturik, eskaintzen dieten zerbitzuaren egitura "arrazionalizatzeko" asmoz elkarrizketarik izan al da Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean? Baiezkoan: zer jarduketa eragin dituzte horiek?

3.- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurarekin zerikusia duten gaietan, nola geratu da une honetan Administrazio Publikoen zerbitzuen egitura, bai Nafarroako Gobernuan, bai Administrazio Publikoen Ministerioan? Horietako bakoitzari atxikiriko funtzionarioak? Bi Administrazio Publiko horiek burutu beharreko funtzio zehatzak?

Iruñea, 1997ko azaroaren 17a.

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Aire bidezko elektrizitate-hariek sorturiko ingurugiro eraginak zuzentzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aire bidezko elektrizitate-hariek sorturiko ingurugiro eraginak zuzentzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Aire bidezko elektrizitate-hariek sorturiko ingurugiro eragina murriztu eta, halakorik bada, deusezteza beti izan da "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldearen kezketako bat ingurugiroaren arloan.

1988an Nafarroako Gobernuak lehenbiziko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen Iberdrola enpresarekin aire bidezko elektrizitate-harrien ordez lurrazpikoak jartzeko, transformazio zentroak berritu eta zentro berriak jartzeko eta eroaleak isolatzeko, elektrokuzioak saihestearren.

Aire bidezko elektrizitate-hariek sorturiko ingurugiro eraginak murrizteko eta, halakorik bada, deusezteko, abian jarri ziren instalazio horiek ingurugiroaren ikuspuntutik sorturiko kalteak murriztuko zituzten jarduketaren programak.

Arestian aipaturiko enpresaren eta Nafarroako Gobernuaren artean izandako lankidetzaren ondorioz, ingurugiroaren kalitatea hobetzeko lan batzuk egin beharko liritekeen elektrizitate-instalazioetako lehentasunen zerrenda bat dago.

Jarduketa horien hasierako jarraipenak bidea eman du, adibidez, zuzenketak egin aurretik eta

egin ondoren zenbat hegazti hil diren zehazteko, elektrizitate-instalazioetako elementu arriskutsuenak aztertu eta egiaztatzeke eta zuzenketa prozedura eraginkorrenak ezagutzeko, beti ere arrazoizko eta aurrekontuetako baliagarritasunen arabera gastuaren ikuspuntutik planteatuta.

Ezagutzen ditugun azken datuen arabera, "aire bidezko elektrizitate-harrietako lotura euskarriek, deribazio-euskarriek eta kanpo libreko transformazioak hegaztien elektrokuzioetatik % 90 inguru sortzen dituzte. Horrela gertaturiko heriotzak % 88 gutxiago dira planteatutako zuzenketa partzialak egin ondoren".

Aire bidezko elektrizitate-harrien ingurugiro eraginak direla eta, ondoko galderari erantzutea eskatzen da:

1. Nafarroako Gobernuaren eta elektrizitate-enpresen arteko lankidetzaren hitzarmenaren akordioak hasi zirenetik, zebateko diru-kopurua erabili da urteko elektrizitate-hariek sortutako kalteak zuzentzeko?

2. Zein da ingurugiro kalitatea hobetzeko lanak egin daitezkeen elektrizitate instalazioen zerrenda, xehe-mehe? Horietako bakoitzean egiteko diren jarduketek zebateko aurrekontua behar dute eta noiz hasiko eta noiz bukatuko dira?

3. Aurreko zerrendatik: zein elektrizitate-harrik ukitzen dute hiriguneren bat? zein da horietako bakoitzaren eraginaren zenbatespena?

4. 2. galderan emandako zerrendatik: zein elektrizitate lerro daude landa ingurunean? zer nolako eragina (paisaia, hegazti faunan edo bietan) du horietako bakoitzak eta zein da eragin horren zenbatespena?

5. Aipaturiko lehentasun irizpideei jarraituz: zein dira 1998an burutzeko aurrekusi diren jarduketaren proiektuak? Kasu bakoitzerako aurrekontuetan aurrekusi edo burutu den kostua.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Gure Komunitateko komunikabideetako seinaleetan dauden inskripzio eta marratzeei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak gure Komunitateko komunikabideetako seinaleetan dauden inskripzio eta marratzeei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Gure Komunitateko hainbat errepidetako seinaleetan ikusi ahal izan denez, informazio-karteleetan, bai komunikazio-bideei buruzkoetan, bai kultur ondasun ezberdinei buruzkoetan, eta bestetan ere, herri eta lekuei buruzko argibideak eta erreferentziak marratuak izan dira; kasu batzutan, gaztelaniazkoak, eta, bestetan, euskarazkoak.

Marratze horiek, gainera egindako inskripzioek eta horiek seinaleetan luze irauteak, komunikazio-bideetako erabiltzaileengan nahasmendu eta errakuntzak eragin ezezik, agerian uzten dute hainbat pertsonak gure kultura eta historiarekiko duten mesprexua, horien intolerantzia eta gure Komunitatearen gizarte-aniztasunarekiko errespetu-eza.

Gure Komunitateko komunikazio-bideetako seinaleetako inskripzio eta marratzeei buruz, honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

1.- Nafarroako Gobernuak zenbatetsia al dauka Nafarroako komunikazio-bideetako seinale elebidunen aurkako eraso hauen norainokoa? Zein zona kaltetu dute gehien?

2.- Nafarroako Gobernuak jarduketarik burutu al du horrelakoen egileen aurka? Nafarroako Gobernuaren ustez, egintza horiek antolatu egiten al dira?

3.- Nafarroako Gobernuak ba al du borondate-rik seinale bertikalak lehen bait lehen garbitu edo ordeztoko, seinale elebidunak leheneratuz?

4.- Aipatu seinaleak garbitu edo ordeztoko lanak nola eta zer bitartekorekin burutzen ditu edo burutzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak?

5.- Nafarroako Gobernuak positibotzat jotzen al du bai gaztelaniaz bai euskaraz Nafarroako herrien eta leku historiko zein naturalen izenen berri ematen eta horiek ezagutzea sustatzen duten seinale elebidunak egotea? Nafarroako eremu euskaldun eta mistoko errepideetan eta bestelako leku berezietan, gure kultur aniztasunaren eta Foru Komunitateko hizkuntza-ondasunarekiko errespetuaren agerpide gisa, seinale elebidunak jartzeko joera hau mantendu eta sendotzeko asmorik ba al du?

Iruñean, 1997ko azaroaren 19an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

A-68ko bidesarietan beherapen bat lortzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak A-68ko bidesarietan beherapen bat lortzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, "Nueva Izquierda"-ko Foru Parlamentaria, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikirikoak, Erregelamenduak ezarrikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Berriki, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak, Audenasarekiko negoziazioaren emaitzen berri emateko Parlamentuan izan zuen Ageraldian, Sustapen Ministerioaren ardurapekoa den A-68 Autobidearen bidesariak jaistea lortzeko eragin positiboa izateko ahalmena zalantzan jarri zuen.

Bide honen zati bat gure Komunitatean trafiko astunik haundiena jasaten duten errepideetako bati (N-232) paraleloa izanik, Castejón-tik Corteserainoko zatian beharrezkoa den horren destolestea erabaki bitartean, eta, agian, Herrilan Kontseilariak berak defendaturiko tesiak frogatzeko ere, beharrezkoa litzateke autobide honen bidesarian beherapen nabari bat lortzea Foru Komunitatea zeharkatzen duen zatiari dagokionean.

Hori guztia dela-eta, zera jakin nahi da:

1.- Zer urrats ematen ari den Nafarroako Gobernua A-68aren bidesarietan beherapen nabaria lortzeko, Nafarroatik igarotzen den zatian.

2.- Ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen, beharrezkoa balitz, Nafarroa zeharkatzen duen A-68aren zatiaren titulartasunaren transferentzia eskatzeko, Arabako Diputazioak egin bezalaxe, bidesaria modu nabarian jaisteko.

3.- Ea Nafarroako Gobernuak komenigarri deritzon Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzeari, bi autonomi erkidegoetatik igarotzen den A-68aren zatiari trataera bateratu bat eman ahal izateko.

Iruñean, 1997ko azaroaren 19an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, oposizio-lehiaketaren bitartez betetzekoa

GAINDITU DUTENEN ZERRENDA ETA IZENDAPEN PROPOSAMENA

1997ko apirilaren 4ko 41 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean arigitaratu zen Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia. Deialdi horretako 9. oinarriak ezartzen duenarekin bat etorriz, gaingitu dutenen zerrenda ematen da argitara, bakoitzak lortu duen puntuazioaren arabera.

| Izen-deiturak | Guztira |
|-------------------------------------------|---------|
| Olaechea Estanga, Asunción | 59,25 |
| Oyarzábal Zubieta, M ^a Dolores | 30,90 |

Era berean, aipaturiko 9. oinarriko 1. idazatian xedatutakoaren arabera, Epaimahaiak Nafarroako Kontuen Ganbarako Lehendakariari M^a Asunción Olaechea Estanga izangaia kontu-ikuskaritzako teknikari izendatzeko proposatzen dio.

Iruñean, 1997ko azaroaren 26an

Epaimahaiko Idazkaria: Miguel Esparza Oroz

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuraren ebazpena, Kontuen Ganbarako Lehendakaria izendatzeko

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 1997ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 25. artikuluaekin bat, eta behar den gehiengoarekin, Luis Muñoz

Garde jauna izendatu du Nafarroako Kontuen Ganbarako Lehendakari, sei urteko aldirako.

Iruñean, 1997ko azaroaren 28an.

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía.

| | |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » . | IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|